

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ramon Lopetegi Goikoetxea

*Belauntza,
Gipuzkoa
(1941)*

Aurkibidea



Biografia



Arretxen jaio zen, aitaren
jaiotetxean, eta bertan bizi
izan zen ondoan Etxaburua
eraiki zuen arte. 27 urterekin
Maria Teresa Arregi
Mendizabal

berastegiarrarekin ezkondu
eta bertan jarri ziren bizitzen.
Bi seme-alaba izan zituzten.
Lau senidetan zaharrena
izanda, baserriko lana eta
eskolako ikasketak uztartu
zituen gazte-gaztetatik.

Ikasketak amaitzean, Uranga
fabrikan hasi zen lanean bi
urtez. Gerora, Licar lantegian
sartu eta 39 urtez aritu zen
han lanean. 1976an,
Belauntzako alkate izendatu
zuten ia halabearrez, baina
postu horretan jardun zen 11
urtez; zinegotzi ere izan zen
hurrengo urteetan.

Belauntzako Gure Txokoa,
frontoia, kultur etxea eta
ehiza-elkartea sortu zituen
bere agintaldian.

Metalgintzak jasan zituen
garairik txarrenak ere
ezagutu zituen, sindikalista
izan baitzen. Erretiroa hartu
zuenean, erlezaintzarako
zaletasuna jorratu zuen. 1000
lore, ezti onenaren
txapelketan, txapela jantzi
zuen, eta bigarren eta
hirugarren postuak ere
jasotakoa da.

Zintak

BEL-010

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2012-01-10
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com